

noaua

Santuenea eta Zubieta
arteko bidea itxita
egongo da bi hilabetez

Ingemarreko langileek
Lugoraino eramán
dute protesta

Herriko jaiak, iruditan



Akabo festak



**antenas
Telemar**

1969. urtetik gipuzkoarrei zerbitzua ematen.
Telekomunikabideetan goi mailako teknikariak.



elkano kalea 13 HERNANI

Tlfnoa. 943 55 33 99
info@antenastelemar.com

6855 zenb. telekomunikabide erregistroan



Mauricio



943 373 613

IRAILAREN 26TIK URRIAREN 4RA
Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasartetik irtenda.



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

CIFP USURBIL LHII

☎ **943 36 46 00**

www.lhusurbil.eus

Erdi eta goi mailako zikloak A, B eta D Ereduak

Administrazioa

Elektrizitate-elektronika

Fabrikazio mekanikoa

Ura eta energia
Produktzio zerbitzu eta manten.



Honako honen bila bazabiltza: Kalitatezko irakaskuntza, lanpostu bat topatzeko erraztasuna, enpresa praktikak, atzerrian praktikak, ekipamendurik berriena.

MATRIKULAZIOA uztailaren 13tik 19ra




Albistea iruditan

Lankidetzaren hitzarmena gizarte eragile hainbatekin

Urtebeterako lankidetzaren hitzarmena sinatu du Usurbilgo Udalak hiru eragileekin: DYA, Usurbilen Nahi Ditugu eta Usurbilgo Odol Emaileen Elkartearekin hain zuzen. Elkarteotako ordezkariak dituzue ondoko irudian sinatze unean, Xabier Arregi Usurbilgo alkatearekin eta gizarte ongizate saileko zinegotzi Jone Urdanpilletarekin batera. Hitzarmen honen eragile bakoitzak jasoko duen udal laguntza zehazten du.

Odol-ematea

Bi hilean behin ospatu ohi den odol emateko hitzorduak uztaileko lehen astelehenean egokitu beharko lukeen arren astebete beranduago izango da. Uztailearen 10ean, 18:00-20:30 artean anulatorioan.



DYA, Usurbilen Nahi Ditugu eta Usurbilgo Odol Emaileen Elkartearekin lankidetzaren hitzarmena sinatu du Udalak.

Laburrean**1958an jaiotako bazkaria**

Irailaren 9rako antolatu dute otordua, arratsaldeko 14:00etan Antxeta jatetxean. Bazkaritarako izena, irailaren 3a baino lehen eman behar da. 50 euroko ordainketa egin behar da Laboral Kutxako kontu zenbaki honetan: 3035 0140 331400030840

Uztailearen 10ean, jaien balorazio bilera

Uztailearen 10ean astelehena, 18:00etan Potxoenean. Usurbilgo Jai Batzordeak deituta. Hitzordu honi begira, galdera sorta bat bidali zaie antolaketa lanetan parte hartu duten eragile eta norbanakoei. Uztailearen 7a baino lehen erantzutea eskatu da.

Udal liburutegiko gomendioen gida, prest

Sutegi Udal Liburutegiak #freskagariak2017 udarako gomendioen gida plazaratu du. Udako ordutegia martxan da: astelehenetik ostiralera, goizeko 9:30etik 14:00etara. Uztaileko astelehen arratsaldeetan ere zabalik, 17:00etatik 19:00etara.

noaia

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkarte@noaia.eus // www.noaia.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.**Publizitatea:** Beatriz Alda,

publizitatea@noaia.eus

Disinu berria: Erroitz S. L.**Erredakzio kontseilua,****erredakzioa@noaia.eus:**

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Jon Galbete, Ekhi

Arrieta.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.**Lege-Gordailua:** SS-668-96**ISSN:** 1136-6818.**Inprimategia:** Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herra!



Garazi Lizaso Manterola

Gozamina da gure aizkorarik zorrotzena!

Hasi da uda eta berekin dakartza txoko bateko eta besteko festak. Txupinazioa han, elektrotxaranga hemen, buruhandi eta erraldioak paseatzen, tortila patata leihaketa noiz amaituko zain egindakoak dastatzeko, kontzertuak, txosnaguneko musika eta, zoritxarrez, ez datoz bakarrik.

Egungo gizarte ereduari jaiak bigarren mailako eremutat hartzen dira. Pasadizo hutsak izango balira bezala ulertzen dira, proiektio sozialik gabeak eta dibertsiorako beste ezertarako balio ez dutenak. Ez da hala. Jaiak eduki sinbolikoa duten kultur adierazpenak dira, errealitateko balioen adie-

razleak. Finean, errealitatearen isla. Horietan jendarte ordena erreproduzitzen da: hierarkiak, zapalkuntzak, botere harremanak, diskriminazioak, sexuen araberako lan banaketa eta genero rolak indartzen dira. Festak ez dira eguneroko errutinatik eta arauetatik ateratzen, ez daude jendarte errealitateetik kanpo.

Hori dela eta, festetan ere zapalkuntzak izango ditugu. Horregatik nioen "zoritarrez", izan ere, ziur nago batek baino gehiagok sentituko duela beldurra etxerakoan edo guztiok entzun behar izango ditugula letra sexistak dituzten kantuak ohiko taberna edo guneeetan. Halakoak ere jaietan etortzen diren bizipenak dira. Hori bakarrik ez, tamalez, uda

honetan ere gehiegikeriak egongo dira alkoholaren edota bestelako drogenpean egotearen aitzakia jarrita. Askok zenbait eraso identifikatu ere ez dituzte/ditugu egingo, barneratuegi ditugulako, naturalizatuegi. Hala ere, horregatik, ez diete jazarpen izateari uzten.

Oholtza gainera begiratzea beste adibide bat izan daiteke. Zeintzuk daude oholtza gainean? Zenbat gizon, zenbat emakume* ala bestelako gorputz eta identitate ez arautu? Beste behin ere, nork hartzen du espazio publikoa? Bertan daudenek zein rol hartzen dituzte? Lotsak eta uste ustelak aspaldi jantzi zizkiguten eta, noizbehinka, kostata bada ere, erantzeta tokatzen da; gure lekua aldarrikatzea.

Gauzak ez dira kasualitatez gertatzen, atzean marmia izan ohi dute eta egoera hauek ez dira salbuespenak.

Jakin badakigu horretan guztian ere jar dezakegula gure aletxoak: izan ezikusiarena egin ordez ekiten, erasotua sentitu denari ez epaitzen, musika sexistari alternatibak bilatzen edota jai parekideen inguruan hausnartu eta antolakuntzan modu aktiboan parte hartzen. Hamaika leku daude deseraiki, eraiki eta eragiteko, norberak aukera dezala berea.

Guk argi dugu ez dugula erasorik onartuko, jaiak espazio seguru eta guztion gozamenerako eremu nahi ditugu. GOZAMENA DA GURE AIZKORARIK ZORROTZENAK!

Aritz Gorriti | Imanol Ubeda | Luis Aranalde | **Garazi Lizaso Manterola** | Maialen Unanue | Idoia Torregerai | Luken Arkarazo

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabideek sustaturiko tira komikoa.

* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOUAik ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: uztaileak 14. Idatzia ekartzeko azken eguna: uztaileak 10.

“Usurbil 0.0”, udalbatzak onartua

Ekainaren 27ko osoko ohiko bilkuran gehiengo osoz onartu zuen udalbatzak “Usurbil 0.0”, azken urtebetean landu den hondakinen prebentzio eta kudeaketa programa. “Ibilbide luze baten emaitza da”, udalerrri honek eremu honetan urte luzez egin duen ibilbide luze batean beste urrats bat, Udalak azpimarratzen duenez.



Ekainaren 27ko osoko ohiko bilkuran, gehiengo osoz onartu zuen udalbatzak.

Onarturiko programa, iazko uztailearen 26ko osoko bilkuratik hona landu da. Pleno hartan, egitasmo hau lantzeko azterketa batzorde bat eratzea erabaki zen. Ordutik, proposamen tekniko bat prestatu da. Nazioarteko adituen, udal teknikari eta ordezkari politikoen, edota herritar zein eragileen ekarpenez hornitu da egitasmoa. Programak besteak beste, gaikako bilketaren bilakaera datuak eta hiri hondakinen bilketa eta tratamendu zerbitzuaren azterketa ekonomikoa jasotzen du.

2023. urtera arteko bide-orria ere zehazten du. Herritarrak ahaldundu, ingurumena eta osasuna lehenetsi, azpiegitura erraldoiak alboratu eta azpiegitura doituak sortu, eta arazo globalei tokiko konponbideak emateko apustua egiten da. Helburu nagusiok finkatu dira hurrengo sei urteotarako:

BIDE-ORRIA

“Herritarrak ahaldundu, ingurumena eta osasuna lehenetsi, azpiegitura erraldoiak alboratu eta arazo globalei tokiko konponbideak emateko apustua egiten da”

■ 2023. urterako Usurbilgo hiriko hondakinen sorrera %10 murriztea eta etxeetako errefusa kopurua 50 kilo biztanleko eta urteko baino urriagoa izatea, erreferentzia urtea 2015a izanik.

■ Usurbilen sorturiko biohondakina herrian konpostatu eta erabiltzea (700 tona biohondakina inguru).

■ 2020 urterako Hiri Hondakinen %90a gaika biltzea, horien kalitatea murriztu gabe.

■ 2023an zabortegian isurtzen

diren hondakinak gehienez ere %5 material biodegradagarri izatea.

■ 2023an hiri hondakinen bilketa eta tratamendu zerbitzuaren defizita 0 izatea.

Hurrengo sei urteoi begira udalbatzak aurreko astean, “programako kronograman zehaztutakoaren arabera, urte bakoitzeko aurrekontuetan jasotako egitasmoak burutzeko beharrezko diru erreserbak egiteko konpromisoa” hartu zuen.

San Markoren erantzuna jasotzeko 15 egun

“Usurbil 0.0” programa gartzeko azterketan sakondu eta informazio osoa izateko, hiru galdera luzatu zizkion Usurbilgo Udalak joan den martxoaren 29an udalerrri hau kide duen San Marko Mankomunitateari. Batetik Udalak “bikain

jaso eta emandako gaiak”, horien trazabilitatea ziurtatu, eta era egokian prozesatzeko konpromezua hartu eta tratamendu bereiztu hori emateko prest egongo ote den Mankomunitatea.

Hala ez balitz, eta Usurbilgo udalerrria San Markoko kide izaten segita, “Usurbilek tratamendu horiek bere gain hartu eta horretarako berea duen eskumena baliatuz hondakinak era egokian tratatu ahal izateko jarraitu beharreko prozedura” zein izango litzatekeen.

Eta azkenik, “tratamenduan aipatu bikaintasuna Mankomunitateko kide gisa lortzerik ez balu, zein izango litzatekeen San Markoko kide izateari uzteko jarraitu beharreko prozedura, eta hala badagokio, egin beharreko likidazioan Usurbili suertatuko litzaiokeen kopurua”.

Galderok duela hiru hilabete helarazi zizkion Usurbilgo Udalak San Marko Mankomunitateari. Ordutik, Mankomunitatekoekin gehiagotan bildu izan dira udal ordezkariak. Baina Udalak gaurkoz, “ez du galdetutakoaren erantzunik jaso”. Horregatik, epe muga bat jarri beharrean aurkitu da Udala. 15 eguneko tarte ematen diote Mankomunitateari erantzuteko. Hala onartu zuen udalbatzak gehiengo osoz ekainaren 27ko osoko bilkuran.

Alkatea: “Oso mingarria da herri mailan duzuen jarrera”

“Usurbil 0.0” programa eta San Marko Mankomunitateari luzaturiko galderak erantzuteko 15 eguneko tarte emateko proposamena EHBilduk babestu zuen aurreko asteko osoko bilkuran. EAJ aurka agertu eta PSE abstenitu zen. EAJ-tik adierazi zuten, ez zituzten egokitzat ikusten Mankomunitateari luzaturiko eskaerak ezta hondakinen kudeaketan aldaketarik egitea ere. PSE-tik San Marko

Mankomunitatearen erantzunari itzarotea eskatzen zioten.

Adierazpenon aurrean, udal gobernu taldetik, Xabier Arregi alkateak EAJ-ri zuzenduta zioen, EAJ-k bestelako jarrerak erakutsi izan dituela beste udalerrri batzuetan. Usurbilgo EAJ-k aldiz alderdi bereko ildo ofizialarekin bat etorri izanagatik, “herri mailan duzuen jarrera oso mingarria da” adierazi zien. PSE-k Mankomunitateko erantzunaren

zain egoteko eginiko eskaerari buruz alkateak zioen, San Markotik “hitza polita” jaso dituztela, baina konpromisorik ez. Eta ondorioz, erantzunaren zain hiru hilabete igarota, Mankomunitateari epe muga bat jartzeko beharra aldarrikatu zuen.

EHBilduren nahia gai honetan herri gisa erantzutea dela ere azpimarratu zuen alkateak.

Udalbatza aretora bertaturiko herritar batek ere hitza

hartu nahi izan zuen. Mankomunitateak, kide dituen udalen zerbitzura egon behar lukeela adierazi zuen. Usurbilen kasuan, 2009an atez ateko bilketa abiatu zuenetik “zer zerbitzu eman digu?” galdetzen zuen. Hondakinen kudeaketan ondo egiten ari direnak, erraustegia auzitan jartzen ari direla gogoraraztearekin batera, EAJ-ri beti aitzakietan ibiltzea egotzi zion, “herri honen aurka” egotea.

Erraustegirako gasa sartzera doaz

Urrats berri bat ematera doaz Zubietako erraustegia, espetxea eta industriagunea eraikitzeko lanetan. Eremu honetara gasa eramateko lanak abiatu zituzten astelehenean. Lanok bi hilabetez gutxienik, Santuenea Zubietarekin lotzen duen herri bide zatiari eragingo diote. Lanak Santuenetik Artzabaleta-Eskuzaitzeta eremura egin nahi baitituzte.

Udala: “Ez digute inolako jakinarazpenik helarazi gai honi buruz”

Lanok honez gero hasita egon arren, “ez digute inolako jakinarazpenik helarazi gai honi buruz” adierazi digute Usurbilgo Udaletik. Usurbilgo Udala lanok baimentzearen aurka agertu da. Eskaera bana luzatu dio Usurbilgo Udalak Zubietan ere lur eremuak dituen Donostiakoari eta Naturgas enpresari. Aipatu enpresari, zerbitzu publikoak eta herritarrentzako pasabidea bermatuko dituen plan bat eta obrari dagokion seinaleztapen proiektua aurkeztea eskatzen dio Udalak.

Donostiako Udalari, “obrek bi udalerrioi eragiten dienez, bidezkoa eta zuzena iruditzen



Bi hilabetez gutxienik, Santuenea Zubietarekin lotzen duen herri bide zatiari eragingo diote.

GARRAIO PUBLIKOA

“TSST konpainiak berri eman duenez, lanok iraun artean behin behineko autobus zerbitzua jarri du Zubietan herritik Lasarteko geltokira joan etorriak egiteko”

zaigu, hauek burutzeko ezarri beharreko baldintza eta neurri zuzentzaileak, aurrez bi udalon artean adostea” galdegiten die. Eskaeron haritik Udaletik aditzera eman digutenez, ez dute Donostiako Udalaren berririk jaso.

Baimena, urte hasieratik ukatua

Naturgasek obra hauek egiteko eskaturiko udal baimena ukatzea erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak urte hasieran, urtarrilaren 31n egin zuen bilkuran. Martxoaren 10ean, erabaki haren kontra berraztertze errekurtsioa eta dokumentazio osagarria aurkeztu zituen Naturgas enpresako ordezkariak.

Berraztertze errekurtsioa eta dokumentazio osagarria aztertu ostean, udal arkitektoak, Ingurumen Teknikariak eta Udal aparejadoreak aldeko txostenak eman arren, udaltzainburuak ekainaren 14an emandako txostenean, “zerbitzu publikoak eta herritarrentzako

pasabidea bermatzen duen plan bat” eta obrari dagokion seinaleztapen proiektua aurkeztea eskatu zuen. Eskaera bikoitz horixe bera helarazi zion aurreko astean Usurbilgo Udalak Naturgas enpresari.

Lasarte-Oria, zubietarren behin behineko geltokia

Lanok Zubietan eta Santuenea arteko bidean eragingo dute. Besteak beste, handik igarotzen den Usurbil eta Hernani arteko bus zerbitzuan. Autobusak Santuenean baino bai, baina handik Zubietara ez dira sartuko Zubietan. Gauza bera gertatuko da Hernanitik udalerrira datozen autobusekin ere. Lasarteko Euskotrenen geltoki aurreko errotondako geltokitik Santuenera etorriko dira autobusak, Zubietatik igarogabe. Egoera hau gutxienez bi hilabetez luzatuko da. Autobus zerbitzu hau kudeatzen duen TSST konpainiak berri eman duenez, lanok iraun artean behin behineko autobus zerbitzua jarri du Zubietan herritik Lasarteko geltokira joan etorriak egiteko. Orduetgia eta informazio gehiago jasotzeko: tsst.info / info@tsst.info 943 361 741

Hernani, Oiartzun eta Usurbilgo Udalek errekurtsioa jarri dute, erraustegiaren Ingurumen Baimen Bateratuaren aurka

Hiru udalok salatzen dutenez, “ikusitako Eusko Jaurlaritzak prozedura guztiak ahaztuta, “automatikoki” eman duela Ingurumenaren Baimen Bateratua”. 2016ko apirilaren 11n ebatzi zuen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAU enpresari, erraustegia eraiki ahal izateko aipatu baimena ematea. Ebazpen horri errekurtsioa jarri zioten Hernani, Oiartzun eta Usurbilgo Udalek, presaka, 11 lan-

egunetan tramitatuta, legezko epea bete gabe onartu zela eta hainbat arau hautsi zirela argudiatuta.

“Jakin badakigu erraustegiaren proiektua batzuentzako zeinen garrantzitsua den. Edozein pauso emateko korrika eta presaka, ezkutuan eta modu ezegokietan egiten ikusi izan ditugu Gipuzkoako Hondakinen Kontorzioan EAJ eta PSEko erraustegizaleak. Baina oraingo honetan, Zubietako erraustegia egiteko bidea erraztu dietenak,

beharrezko prozedura jarraitu gabe, Jaurlaritzako Ingurumen Sailekoak izan dira”, salatu dute Hernani, Oiartzun eta Usurbilgo Udalek.

“Ez gaude geldi”

Egoera salagarria dela irizten diote hiru udalok, “Eusko Jaurlaritzak prozedura guztiak urratu dituelako”. Baita Europako zuzentaraua eta hortik eratorritako legedi eta plangintzen irizpideak ere. Erraustegiak gipuzkoarren osasun,

ingurumen eta ekonomiarentzako kalte handiak ekarriko dituela ohartarazita, “ezin dugu isilik geratu Ingurumen sailak egindako prozedura eta arau urratzeak ikusita. Gipuzkoarrok errespetua merezi dugu eta, beste behin ere, erraustegiaren proiektua nola edo hala egin nahi dutenei eta euren konplizeei esan behar diegu ez gaudela geldi eta gure herritarren eskubideak defendatzeko lanean jarraituko dugula”.

Erraustegiaren aurkako aldarria, udaletxeko balkoian

Herritarren borondatea errespetatu, erraustegirik ez!” lelodun pankarta ikusgai izan dugu jaiotan udaletxeko balkoian, udalbatzak gehiengo osoz, ekainaren 27ko osoko ohiko bilkuran EHBilduk aurkezturiko mozioa onartu ostean. Testu honek dioenez, “herri hau erraustegiaren aurka dagoela modu argian agerrarazi nahi dugu”.

Mozioak, erraustegia erdugarri den udalerrri honen aurkako zigor gisa definitzen du. “Usurbil herri eredugarria da, konpromiso zibikoan eta bilketa selektiboko tasetan. Erraustegia kilometro batetara eraikitzea, zigor krudel gisara ulertzen dugu”.

Horregatik, urte luzez Usurbilgo herriak sarritan adierazi izan zuen iritziazen isla argia izatea nahi zuen, jaietan zintzilik izan den pankarta.

“Goitik esandakoa isilik ari zarete irensten”

Mozioa bera onartu eta erraustegiaren aurkako aldarria usurbildarrona den etxeko balkoian zintzilikatzea ez zuen begi onez ikusi oposizioak. EHBilduk babestu zuen testuaren aurka agertu zen EAJ eta PSE-ko udal ordezkaria abstenitu zen. Fermin Orueri ez zitzaion logikoa iruditzen, mozio hau onartzea. Gobernu taldetik erantzun zuten, “zoritarrez gaiak hor dirauen artean”, gai honi lotutako erabakiak hartzen segi beharrean aurkituko



Jaietan udaletxeko balkoian zintzilik izan zen pankartak zera zioen: “Herritarren borondatea errespetatu. Erraustegirik ez!”.

AZKEN PLENOAN

“Mozioa bera onartu eta erraustegiaren aurkako aldarria udaletxeko balkoian zintzilikatzea ez zuen begi onez ikusi oposizioak”

zirela erantzun zuen Xabier Arregi alkateak. Mozioa udalbatzak bere osotasunean onartu asmoz aurkeztu zutela ere gaineratu zuen udal gobernu taldeak, gai honetan zentzua nagusitu eta erraustegia bertan behera geratzeko desioa agertzearekin batera.

“Herri honen aurrean, zuek izango zarete arduradunak”

Udalbatza aretora gerturaturiko zenbait herritarren artean haserrea eragin zuen oposizioko udal taldeon jarrerak. Herritar batek, “hemen goitik esandakoa isilik irensten ari zarete” aurpegiatu zien. Amiantoarekin gertaturikoa oroitarazi zien, baita erraustegiak sortu eta areagotu ditzakeen gaixotasunak ere.

“Zuen jarrera ulergaitza da”, zioen EAJ eta PSE-ko udal ordezkari zuzenduz. Garai batean Gipuzkoako PSE-ko ordezkari bezala, Madrillgo PSOeren idazkari nagusia edota alderdi bereko beste hainbat ordezkari garrantzitsu, Madrilen bertan eraiki

nahi dieten erraustegiaren aurka mobilizatzen ari dira. Gipuzkoako PSE-ko ordezkari ezagun hainbat erraustegiaren aurka agertu ziren iraganean. Horregatik galdetzen zien, “zer gertatu da jarreraz aldatzeko?”.

Oposizioko udal taldeoi begira, argi adierazi zien; erraustegia martxan jartzen bada, eta ondorioz, gaixotasunak hedatzen hasten badira, “herri honen aurrean, zuek izango zarete arduradunak”.

Erraustegiak herritarren osasuna arriskuan jar dezakeela ohartarazita ere, oposizioko udal taldeak, EAJ-k eta PSE-k ez zuten erantzun, isilik geratu ziren ekainaren 27ko osoko ohiko bilkuran.

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
eraikuntzak-OBRAK-ERREFORMAK

Otar-Goxo
Elkagaiak
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiturgintza.com • www.inakiturgintza.com
600 024 825

Zubietako lanak ez baimentzeko eskaera

Bizilagun batzuk etxera, berriro diogu, etxera iri-tsi ezinik; beste batzuk, haiena duten baratzerara ere gerturatu ezinik. Hala ikusi dituzte zubietar bat baino gehiago, ezustean, eta ulergarria den moduan haserre, aste hasieran Santuenea eta Zubieta lotzen dituen herri bidea itxi ostean. Erraustegirako, industriagunerako eta espetxerako gasa sartzeko Zubietako Larrizta bidean uztaila eta abuztuan zehar bideratu asmo dituzten lanen ondorioz hesitu dute eremu honetako bide zati bat.

Hainbat herritarrek, Usurbilgo Udalarekin eta Zubietako Herri Batzarrekin batera, bizitzen ari diren egoera salatu zuten publikoki asteartean, Zubietan bertan. Eskaera argi bat egin zuten: “Obra hau geldiaraztea eskatzen dugu, hiru erakundeen arteko irtenbide egokia adostu eta guztiaren berri herritarrei jakinarazi arte”.

Donostiaren “nagusikeria”

Usurbil eta Zubietako alkateak, Xabier Arregik eta Joxe Mari Zubimendik hurrenez hurren irakurri zuten salaketa adierazpena. Lanon berririk ez dutela nabarmendu zuten, ezta bide hau bilatzen duten zerbitzu-enpresek ere; hala nola, hondakin bilketa, garraio edota posta zerbitzuko langileak. Antza, Donostiako Udalak lanok abiatzeko baimena eman du, baina Zubieta eta Usurbilgo erakunde eta herritarrak kontuan izan gabe. “Nabarmen utzi du berriz ere begirunea galdua digula zubietarroi eta usurbildarroi. Nagusikeriaz jokatu du osterara ere. Zubietarrok eta usurbildarrok herri bizitza beste interes batzuen azpitik dagoela erakutsi dute, enegarren aldiz”, salatu zuten.

Bidea ixteak dakartzan arrisku eta kalteez ere ohartarazten dute Zubietako Herri Batzarrek



Santuenea eta Zubieta lotzen dituen herri bidea itxi ondoren, haserre agertu ziren Zubietako zein Usurbilgo alkateak.

XABIER ARREGI

“Eurena bakarrik inportatzaie, eta besteon eguneroko bizimodua, bost axola. Nazkatuta gaude”

eta Usurbilgo Udalak. “Bidea itxi dute, eta kalte handia eragin dute gure eguneroko bizimoduan: ohiko ibilbideak itxi dizkigute, larrialdiren bat gertatuz gero ez dago inolako aurreikuspen planifikaturik, hondakinak non utzi eta nola jaso ez daukagu, garraio publikoa murriztu eta trakestu egiten dute...”, adierazi zuten.

Azpijokoan

Ez datoz bat ezta ere lanon helburuarekin. Zubieta gaineko azpiegiturak gasez hornitzeko bideratu nahi baitituzte obra hauek. “Bereziki irmoa da erraustegiaren aurkako jarrera. Zubietan eta Usurbilen ezin ozenago egin dugu aldarririk: erraustegia guztiz kaltegarria da, eta ez da beharrezkoa. Bereziki larria da osasunari, ingurumenari eta gure eredu sozio-ekonomikoari eragiten dien zauria. Bada, hasi gara nabaritzen kalteak: Zubieta-

tik Usurbilerako bidea moztea ekarri du gasaren hornikuntzak”, nabarmendu zuten.

Mota honetako ekintzek, Zubietako Herri Batzarren aburuz, “erakusten dute erakunde bakoitzak besteekiko duen errespetua: konfidantza eta elkarlanean oinarritu behar, azpijokoan eta ezkutuka gartuz nork bere interesak”. Onartezintzat eta errespetu falta izugarritzat jotzen zuen Xabier Arregik, egiten ari direna. “Eurena bakarrik inportatzaie, eta besteon eguneroko bizimodua, bost axola. Nazkatuta gaude”.

Donostiako udaltzainen jarrera

Etxe atariak edo etxerako bidea etenda ikusita, zubietar bat baino gehiago izan dira egunotan zer gertatzen ari

zen ikustera obren eremura gerturatu direnak. Astearteko agerraldian, zenbait herritarrek Donostiako udaltzainen aldetik jasotako tratua deitoratu zuten. “Obretara gerturatu dira, ikusi dutelako bapatean beren etxeetako irteera oztopatuta. Joan dira jakitera zer gertatzen den. Ez zaie inolako informaziorik eman eta hori gutxi ez eta, Donostiako udaltzainen jazarpena jasan behar izan dute”, salatu zuten. Hedabideoi ere gure lana ohi den moduan egitea zaildu digute, bereziki lanen inguruko argazkiak ateratzerakoan. Argazkiak ateratze hutsagatik, Donostiako udaltzainak datu eske aritu dira kazetariei egunotan. Zubietan nabaria da udaltzainon eta Er-tzaintzaren joan etorria.

Igandean, alkate aldaketa Zubietako Herri Batzarrean

Azken orduko aldaketarik ez bada, igande honetan bertan, uztailearen 9an egingo dute alkate aldaketa Zubietan. Gogoan izan, legegintzaldiko lehen bi urteak Zubietako herri Batzarreko kide bat izaten dela alkate, beste bi urteetan beste kide bat. 2015-17 tarte hone-

tan, Joxe Mari Zubimendi izan da Zubietako alkatea. 2017-19 artean aldiz, Narciso Arrillagak hartuko du lekukoa.

Ekitaldia, Kaxkapen

Ekitaldia, igande honetan eguerdiko 13:00etan Zubietako Kaxkape egoitzan.

Ingemarreko langileak, Lugon



Ekainaren 29an Lugoko epaitegi aurrean elkarretaratu ziren "Ingemar ez itxi" aldarripean.

Ingemarreko Usurbilgo plantako langileak Lugon (Galizia) izan dira egunotan. Ekainaren 29an bertako epaitegi aurrean elkarretaratu ziren "Ingemar ez itxi" aldarripean, langileek bertatik NOAUA!ri berri eman eta Lugotik helarazitako irudian ikus daitekeen moduan. Gero Ingemar taldeko hango

lantegira, Ingemargara joan ziren. Langileek salatu zuten, "Usurbildik joandako langileei ez diete utzi Guitirizko enpresan sartzen". Ingemarga enpresan alegia. Halere, bertako Langileen Batzordeko kideekin bildu ahal izan ziren.

Gogoan izan, Ingemar Taldeko zuzendaritzak Usurbilgo

plantako lan talde osoarentzat, hau da 72 langilerentzat kontratu amaierako EEE (Enplegua Erregulatzeko Espedientea) aurkeztu zuen ekainaren 2an Lugon bertan (Galiza). Urte luzez egin duten moduan, itxieraren aurka eta Usurbilgo plantaren erren-tagarritasuna defendatzeko borrokan segitzen dute langileek.

Euskara eta aisialdiko udal diru laguntzak eskatzeko azken egunak

Iazko irailetik datorren abuztuaren 31ra euskara ikastaroren bat egin duen 16 urtetik gorako Usurbilen erroldaturiko herritarrari, %100eko diru laguntza emango dio Udalak, baldin eta ikastaroan zehar %80ko asistentzia izan duela egiaztatzen badu, euskaltegiaren ziurtagiri bidez. Bestalde, hurrengo ikasturteari begira, 2017ko irailetik 2018ko

ekainaren 30era euskara ikastaroren bat egiteko asmoa izan eta behar ekonomiko bereziak izanez gero, matrikula kostua aurreratzeko aukera eskainiko du Udalak. Kasu honetan ere eskabideak uztailearen 7a baino lehen aurkeztu beharko dira udal erregistroan.

Azkenik, 2016-17 ikasturtean aisialdiko begirale edo zuzendari ikasketen matrikularen

erdia diruz lagundu dezake Udalak, gehienez diru kopuru mugatu baten baitan. Horretarako ezinbestekoa izango da Usurbilen erroldatua egon, eskabidea ostiral hau baino lehen egin, eta araututako epearen baitan titulua eskuratua izatea. Informazio gehiago: usurbil.eus / ekainaren 14ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.

Adi lapurrekin

Bere burua Foru Aldundiko ordezkari gisa aurkeztuz, zenbait bizilagunek adierazi dutenez ate joka ibili dira azken egunotan herrian. Adi ibili, etxean azterketaren bat egiteko nahia adieraziz, bestelako ezkutuko asmoak baitituzte; etxera sartu eta lapurreta egitea alegia. Halako egoeraren bat bizitzero, salatzea komenigarriena, gertaturikoa jasota geratu dadin eta neurriak hartu ahal izateko. Honatx Usurbilgo Udaltzaingoaren telefono zenbakia: 943 361 112.

Koordinazio soziosanitariorako protokoloa

Arazoaren edo arrisku egoeraren ebazpen eraginkorragoa lortzeko osasun sistemaren eta gizarte zerbitzuen abordatze bateratua" behar duen pertsona edo familia orori zuzendurikoa da, udalbatzak aho batez, ekainaren 27ko osoko ohiko bilkuran onartu zuen koordinazio soziosanitariorako protokoloa.

Eremu honetan eskualdean eta Gipuzkoan lan egiten duten erakundeen arteko koordinazioa bermatzea du helburu protokolo berriak. Lau urterako sinatutako den protokolo honen harira, eskualde mailako jarraipen batzorde bat sortzea proposatzen da, bertan parte hartzen duten erakundeetako ordezkariekin.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4 20170
Tlf 943 37 08 78 RPS: 28/17 USURBIL

Maila itzela, sortzaile gaztetxoaren artean

Usurbilgo zuhaitzik ederrena marraztea zuten erronka; eta erraz lortu zuten helburua, 15. Pintura Lehiaketan parte hartu zuten 2-16 urte arteko haur eta gaztetxoek. Parte hartze eta sormenerako maila itzela dutela erakutsi zuten lehiakideek. 11 izan ziren sarituak:

■ 2, 3, 4 urtekoen artean:

Beñat Lasa.

■ 5 urtekoen artean:

Ainhoa Villafafila.

■ 6 urtekoen artean:

Eñaut Soroa.

■ 7 urtekoen artean:

Intza Zaldia.

■ 8 urtekoen artean:

Nora Pagola.

■ 9 urtekoen artean:

Maddi Aranguren Carbayeda.



Partehartzea handia izan zen. Argazkian, gazte sarituak.

■ 10 urtekoen artean:

Uxune Azkue.

■ 11 urtekoen artean:

Peru Agirresarobe.

■ 12 urtekoen artean:

Araia Soroa.

■ 13 urtekoen artean:

Ainhoa Zabaleta.

■ 14, 15 eta 16 urtekoen artean:

Unax Pagola, Enara Egizabal eta Eñaut Pagolak taldean eginiko lana.

Jaietan ere, Olatz, Xua eta Patxi gogoan

Jaietan ere ez dituzte ahaztu nahi izan, gugandik 600 bat kilometrotara, Valentziako Picassenten espektakatuak segitzen duten Olatz Lasagabaster, Patxi Uranga eta haien haurtxo Xua. Olatz Lasagabasterren amak, Xomorren bertsoa eta lore sorta

ederra jaso zituen, uztailearen leian Askatasuna plazan egin zen ekitaldian. Hunkituta eskertu zien jasotako babesari Mari Karmenek, Askatasuna plazako estalpera bertaraturiko herritarrei. Agurra ere dantzatu zitzaie preso segitzen duten herritarrei.



Mari Karmen Anzak Xomorren eskutik jaso zuen lore sorta bat.

Txupinazo aldarrikatzaile eta solidarioena

Jaien hasiera ekitaldia inoiz baino aldarrikatzaile eta solidarioagoa bizi izan dugu aurtengoan. Erraustegiaren eta eraso sexisten aurkako aldarriari tarte egin zitzaie ekainaren 29an, udaletxe aurreko plazan ospaturiko ekitaldian. Ingemarrek langileak

eta herritik urrun preso daude-nak ere gogoan izan ziren.

Hurbilago Elkartea

Txupinazoa jaurtitzeko ohera izan zuen Hurbilago Elkartea egiten ari den lana ere goraiatu eta zoriondu zuen Udalak.



Hurbilagok piztu zuen txupinazoa.







Klik! batean

Egilea eta bere obra

Ekitaldi guztien lekuko izan dira. Jaietako zaindaria. Agur esateko ordua iritsi zaie. Argazkian, hala ere, pozarren ageri dira. Jokin Eizagirre bezainbeste.

Argazkia: Ion Markel







Argazki gehiago, noaia.eus web orriko Argazkitezian.

Kirol ekitaldietako emaitzak



Hainbat txapelketa ospatu ziren uztaillaren 2an frontoian eta Mikel Laboa plaza inguruan.

Usurbilgo Pilota Txapelketa

■ Kadeteak:

I. Galarraga - A. Iruretagoiena 16
Manex Albeñiz-Ibai Salemi 22

■ Nagusiak:

Paul Ojuel-Eneko Aizpitarte 17
Igor Azpiri-Daniel Murgiondo 22
Oharra: 11.863, errifa zozketako zenbaki saritua.

Mus txapelketako sarituak

30 bat bikoteek hartu zuten par-

te. Irabazleak: Iñaki-Andoni.
2.- Xabat-Joseba. 3.- Pako-Peli.

“A un toke” txapelketa

Jon Galarraga eta Aitor Zabala.

Pala Txapelketa emaitzak

Ekainaren 27an, gurpildun aul-

kikoen egindako erakustaldi eta neurketarekin batera jokatu ziren Usurbilgo Pala Txapelketako finalak:

Nahia Eizmendi/Garazi Eizmendi 25
G. Urdanpilleta/M.Arrillaga 21
Xabi Murua/Iosu Rekondo 25
Axier Arruti/Iban Arruti 21

20 egun, Ugartondoko etxebizitzetan izen emateko

Ugartondo eremuko C eta D partzeletan eraikiko diren babes ofizialeko 46 etxebizitza eta A eta B partzeletan eraikiko diren beste 46 etxebizitza tasatuak, guztiak beren garaje eta trastelekuekin esleitzeko oinarriak behin betiko onartu zituen udalbatzak, ekainaren 27ko osoko ohiko bilkuran. Erabaki honen berri eman eta eskabideak egiteko epea irekiko dela jakinarazteko iragarkia argitaratu du Udalak. Iragarki hau argitara eman eta biharamunik zenbatzen hasita, eskabideak aurkezteko 20 eguneko epea izango dute interesdunek.



Ugartondo eremuan eraikiko diren etxebizitzetan oinarriak behin betiko onartu zituen udalbatzak.

2016ko Errenta Aitorpena

Oinarriok hasieraz onartu zituztenetik ez da alegaziorik izan. Baina bi aldaketa txertatu ditu Udalak. Batetik, 2015ekoa ez, 2016ko Errenta Aitorpena hartuko zaie kontuan eskatzaileei. Datu eguneratuagoak beraz.

Bestalde, gizarte-sektore ezberdinentzako etxe kopuru zehatzak gorde dira. Tartean, 35 urtetik beherako herritarrentzat 10 etxebizitza. Kupo honetan zuzenketa bat txertatu du Udalak, eskabideak norbanako bakarraz zein pertsona bat baino gehiagoz osaturiko bizikidetzak unitateak aurkeztu daitezkeela argitzeko batez ere.

2007ko esleipena, bertan behera

2007ko martxoan Olarriondon eta Ugartondon babes ofizialeko 168 etxebizitza bere garaje

BALDINTZAK

“2015ekoa ez, 2016ko Errenta Aitorpena hartuko zaie kontuan eskatzaileei”

eta trastelekuekin esleitzeko oinarriak onartu zituen garai hartako udalbatzak. Eskaerak aurkezteko epea ere zabaldu zuten eta tarte horretan, 420 eskaera aurkeztu zituzten herritarrek. 359 onartu ziren behin betiko 2008ko apirilko osoko bilkuran. Proiektu hura ordea eten eta geldirik izan da azken 10 urteotan. Udaletik oroitarazten dutenez, “proiekturik ez zen sekula aurkeztu eta noski Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren behin behingo kalifikaziorik ez zen eskuratu”. Orain, Ugartondo

eremuan babes ofizialeko 46 etxebizitza esleitzeko jardunbidea abiatu duenez, 2007ko esleipena bertan behera uztea erabaki zuen udalbatzak aho batez, ekainaren 27ko osoko bilkuran. Eta horrekin batera, “interesatuek jardunbidean parte hartzeko aurkeztutako eskaera eta dokumentazio guz-

tia suntsitzeko agintzea”.

Iartza

Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako Iartza eremuko HEU 107-22 exekuzio unitateari dagokion xehetasun-azterketa behin betikoz onartu zuen aho batez udalbatzak, azken osoko bilkuran.

Zumarteren lekualdatzea egiteko laguntza behar da

Bi urteko birgaitze lanek iraun artean, Zumarteren bulegoa, Puntapax kaleko global batean kokatuko da. Musikariak, Udarregi Ikastolan eta Santueneko frontoi atzeko lokalean izango dira. Egungo eraikina hustu eta bertatik materiala behin behineko beste lokal hauetara garraia-

tzeko bi egun finkatu ditu Zumarrek; uztailaren 5a eta 6a. Herritarrak auzolan honetan parte hartzera deitzen dituzte.

Laguntzarako txandak ordutegia:

09:00-13:00 Lehen txanda.

16:00-19:30 Bigarren txanda.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Patxi
Patri 2012
Jateixea
- bazkariak EGUNERO
- afariak, asteazkenetik larunbatera
© 943 362725 · © 688 690 361

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

ETXETRESNEN 
KONPONKETAK
azkar, prezio onean MARKA GUZTIAK
20 URTEKO ESPERIENTZIA
645417665
XABIER
Usurbil

Diru kontuei lotutako hainbat erabaki

Diru kontuei lotutako zenbait erabaki hartu zituen Usurbilgo udalbatzak, ekainaren 27ko osoko ohiko bilkuran.

Batetik, 2017-2019 urtera arteko diru-laguntzen Plan Estrategikoa behin betiko onartu zuten udal ordezkariak aho batez. Apirilaren 25eko plenoan onartu zuen hiru urterako plan hau hasieraz. Gero hilabeteko epea zabaldu zuten alegazioetarako. Aurreko asteko osoko bilkuran udal gobernu taldeak aditzera eman zuten ordea, tarte horretan ez zen alegaziorik aurkeztu. Udaletik ordea, bidezkoa ikusi dute Gizarte Zerbitzuen sailean aurtengorako 3.000 euroko lerro berri bat txertatzea. Inbertsio hau, aurreikusitako gabezia-zerbitzuetako egoera-premia be-rezietara bideratuko da.

Aipatu moduan, aldaketa hau barne, udalbatzak aho batez onartu zuen 2019ra arteko udal diru-laguntzen plan estratetikoa.

2016ko Kontu Orokorra, behin betiko onartua

Maiatzaren 8an gai honi lotutako Kontuen Batzorde Berezira 2016ko Kontu Orokorra eraman ostean, 15 egunez zabaldu zen epearen baitan alegaziorik ez zen aurkeztu. Ekainaren 27ko osoko ohiko bilkuran gehiengo osoz onartu zen behin betiko EHBildu eta PSE-ren aldeko bozkekin. EAJ-ko ordezkariak abstenitu ziren.



Datozen bi ikasturteotan bideratuko dira Zumarte berritu eta handitzeko lanak.

KREDITU ALDAKETA

“Aurtengo aurrekontuetan 2.000.000 euroko kreditu gehigarri bat txertatzea onartu zuen udalbatzak aho batez. Kopuru hau, osorik, Zumarte Musika Eskolaren eraikina birgaitzeko lanetara bideratuko du Udalak”

Aldaketa, 2017ko zerga ordenantzaz

Udalak ordenantza hau indarrean duen arren, honen baitan badira zenbait prezio, ikasturteka onartu beharrekoak. Horien artean, Oiardo Kiroldegiak irailean martxan jarri ohi dituen ikastaroetako prezioak.

Iaz esleitu ziren ikastarook emateko zerbitzua. %1,9an finkatu zen zerbitzu kostuaren igoera eta igoera hauxe bera zen, ekainaren 27ko osoko bilkuran udal gobernu taldeak aplikatzea proposatu zuena. Aho batez onartu zen. Baita, udazkenean martxan jarriko den eguneko arreta zerbitzua- ren prezioak ere. Diru-sarrearen arabera, eguneko 1-3 euro artean finkatzea erabaki zuten. Aldaketok aho batez onartu zituen hasieraz udalbatzak, ekainaren 27ko osoko ohiko bilkuran. Erreklamazioak aurkezteko 30 eguneko epea egongo da.

Aurrekontuko kredituetan aldaketa

Aurtengo aurrekontuetan 2.000.000 euroko kreditu gehi-

garri bat txertatzea onartu zuen udalbatzak aho batez azken osoko bilkuran. Kopuru hau osorik, Zumarte Musika Eskolaren eraikina birgaitzeko lanetara bideratuko du Udalak. Udalbatzak hartutako erabakiari erreklamazioak aurkezteko 15 egunez izango da jendaurrean. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betiko onartutzat joko da. Gogoan izan, datozen bi ikasturteotan bideratuko direla Zumarte berritu eta handitzeko lanak. Tarte horretan, behin behinean Udarregi Ikastolan, Atez Ateko informazio bulego ohian eta Santueneko frontoi atzeko lokalean sakabanatuko dira Zumartekoak. Horretarako, uztailearen 5ean eta 6an egitekoak ziren leku aldaketa.

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

ARRANDEGIA
PELLO

PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL

Benasqueko asteburu pasarako izen ematea, uztailaren 12ra arte

Iaz bezala, irailaren 9 eta 10eko astebururako antolatuta du Andatza M.K.T.-k, urtero egin ohi duen Pirinioetako asteburupasa. “Benasqueko bailarara joango gara, Posets (3.375 m) egiteko asmoz. Angel Orus aterpean ostatua hartuko dugu”, berri eman dute antolatzaileek. Izen ematea uztailaren 12ra arte zabalik. Hemen xehetasunak:

■ Egunak: irailak 9, 10.

■ Ibilbidea:

-Irailak 9: “6:00etan Usurbildik abiatuko gara autobusez. Bidean geldialditxo egin ondoren, Benasqueko bailarako Eriste herrira iritsiko gara, Angel Orus aterpera abiatzeko”.

-Irailak 10: “Angel Orus Aterpetik Posets-eko gailurra egiteko asmoz abiatuko gara. Ondoren Eristera jaitsiko gara autobusa hartzeko eta ilunabarrean Usurbilera iristeko”.

Izen ematea: uztailaren 12ra arte.

■ Prezioak:

-Andatzako bazkideek: 36 euro FEDME gehigarria dutenak; 45 euro ez dutenak.

-Andatzako bazkide ez direnek: 61 euro FEDME gehigarria dutenak; 70 euro ez dutenak.

Ordainketak, kontu zenbakio-tako batean:



Iaz, Ordesan izan ziren. “Aurten, Benasqueko bailarara joango gara, Posets (3.375 m) egiteko asmoz. Angel Orus aterpean ostatua hartuko dugu”. Argazkia: andatzamendizale.info

Rural Kutxa: 3008 0259 1630 0543 0321

Kutxabank: 2095 5069 0710 6848 9805

■ Oharrak:

-Plaza mugatuak. Izen emateko zerrenda errespetatuko da, plazak bete arte. Lehentasuna Andatzako kideek izango dute. -Andatza M.K.K.-ren irteeretan parte hartzeko ezinbestekoa da mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean izatea. “Federatu gabe dagoenari tramitea egingo diogu, hala nahi badu. Komenigarria da izapidetza ahalik eta azkarren egitea”.

■ Informazio gehiago eta har-

tuemanetarako: andatza.com andatza@hotmail.com

Bidasoako Kontrabandistak ibilbideko azken etapa

Igande honetan, uztailaren 9an osatuko dute urte hasieratik osatzen ari diren ibilbideko azken etapa, Etxalar-Ibardin artekoa. Andatza M.K.T.-k antolaturiko irteerarako izen ematea itxita dago. Apuntatu direntzako oharra; igande goizeko 07:00etan jarri da autobusez txangora abiatzeko hitzordua, Oiardo Kiroldetitik.

Joseba Otaegi aizkolaria Lehen Mailara igo da

Gipuzkoako Bigarren Mailako aizkolarien finala jokatu zen Santixabel egunean. Xabier Zaldua, Jon Irazu, Joseba Otaegi, Eneko Otaño, Luix Txapartegi eta Jexumari Mujika aritu ziren aurrez aurre.

Kirolari bakoitzak lau kana-erdiko eta bi 60 ontzako lana osatu behar zuten. Joseba Otaegi izan zen azkarrena. Bigarren Zaldua izan zen, hirugarren Otaño, laugarren Txapartegi, bostgarren Mujika eta seigarren Mugertza. Txapela irabazteaz gain, Lehen Mailan aritzeko txartela eskuratu du Joseba Otaegik.



Gipuzkoako Bigarren Mailako aizkolarien finalean aise nagusitu zen Otaegi.

Aimar Irigoien erakustaldia

Aizkolari Txapelketa amaitu berritan, eta Trontzako Txapelketa hasi aurretik, Aimar Irigoien erakustaldiaz gozatu zuten Dema plazara hurbildu ziren zale-tuek.

Dema plaza, gainezka

Igandekoa, jaietako egun jendetsuena izan zen. Eguraldia lagun, asko izan ziren herri kiroletara hurbildu ziren herritarrak.



Aimar Irigoien harri ezberdinekin aritu zen.

Onsalo eta Astiazaran nagusitu ziren trontza txapelketan

Euskal Herriko emakumezkoen Lehen Trontza Txapelketa jokatu zen Santixabel egunean, Usurbilgo Dema plazan. Itxaso Onsalo eta Leire Astiazaran nagusitu ziren. 10 ebakidura egiteko, 4 minutu eta 19 segundu behar izan zituzten. Nerea Sorondo eta Amaia Garcia izan ziren txapeldun orde. Lan berbera osatzeko 5:24 denbora igaro zuten Sorondok eta Garciak.



Txapeldunak eta txapeldun ordeak, finala amaitu berritan.

ETXEBIZITZA

Salgai

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m² eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Pisu bat salgai. 90 m². 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m² pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m² (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berritua. 359.000 euro. 679002101

Pisua salgai Santuenean. 2 logela, sukaldea, egongela, komuna eta trastelekua. Tel. 664 689 597.

Etxebizitza bat salgai Atxegalden. Alperroburu 8an. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. 25 m² trastelekua. 185.000 euro. 626347914

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60

BOE-ko 79m² etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela, 2 komun, saloia, sukaldea... Dena kanpokaldera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trastelekua. 629631838

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrek doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrek bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

(620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Pisua salgai Urdaiajan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m². Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. 90.000 euro. 646344847

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean. Inaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Alokairuan

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Logela baten bila nabil, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Tel. 697 241 684.

Negozio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxxono kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia

arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu baten bila nabil, altzariek eta gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

120 metro² lokal bat salgai. Alperroburu 3an. 699 306 158

Garaje itxi bat alokatzen da Zubiaurrenea 10ean. 620024663

Garbara, atiko edo trasteleku bat

erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta 5 ate. 943 370 677

Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian, Usurbilgo sarreran. 65795378

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxeo karnetarekin gidatu daiteke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 zilindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m² karra-tukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m², Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

Garaje itxia salgai, 38 m² koadro, Kalea Txaramunto, 12. Usurbilen. 665677195

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsuak. 671 547 567.

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Errekaxiki-Puntapaxetik. 653380557.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Astebururako langile bat behar dugu Laukoten okindegian. Bidali kurikulumak helbide honetara: eelorza202@gmail.com

Zerbitzari lanak egiteko, neska

edo emakume euskaldun bat behar da. Tel. 690 106 070

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaoccidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Ekamume bat lan bila. Interna, externa edo orduka. Pertsona helduak gautuz zaintzeko edo umek zaintzeko edo arropa plantxatzeko. Prezio ona. 676 188 411

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gautetan. Garbiketa lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska gazte bat eskaintzen da euskarako eta gainontzeko ikasgaietako klase partikularrak emateko. Euskal Filologian lizentziatua, Mondragon Unibertsitatean Irakaskuntzako masterra bukatu berri. 687348223

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da opporretan umek zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrak emateko prest egongo litzateke: euskeran, gazteleran, ingelesean eta frantsean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gautetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketara. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627



Zorionak Noa!

Uztailaren 3an gure "pirata kattalinek" zortzi urte beteko ditu. Muxu pottolo pottolo bat Jonas, Ana eta Araiairen partez. Muuuuuuaa!!!



Zoriona Eneko!

Uztailaren 11n hamar urte betetzen ditu gure etxeko ttikiak. Ondo ospatu eta muxuak etxeko guztien partetik.

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelheenetik ostirale-
ra. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, or-
duka, gauetan... edoizen modu-
tan. Pertsona helduak zaintzen,
garbiketa lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia
eta esperientziarekin eskaintzen
da. Pertsona helduak edo umeak
zaintzeko edo garbiketara lan egite-
ko. Irterna moduan, orduka edo
gazez. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lan-
ean hasiko nintzake. Pertsona
helduak edo umeak zaintzen edo
garbiketara, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean,
120 metro2. 699 306 158

Neska arduratsua eskaintzen da
garbiketa egiteko orduka edo goi-
zetan. 629 110 310

Neska bat eskaintzen da orduka
lan egiteko. Etxeak garbitu edo
adineko pertsonak zaintzeko. Tel.
687 348 223.

Haurrak zainduko nituzke orduka:
619 355 819

Geriatría laguntzaile bezala, edo
sukaldari bezala (euskal sukaldear-
en ezagutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxee-
tan ilea orrazteko eskaintzen naiz.
Aproposa pertsona helduentzat,
edo etxetik atera ezin duenaret-
zat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo
garbiketa lanak egiten lan egingo
nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan
egingo nuke, pertsona helduak
zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiket-
tan, umeak edo pertsona helduak
zaintzen edo sukaldari lan egingo
nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil.

Interna moduan eta orduka.
Pertsona helduak edo umeak zain-
tzen edo garbiketa lanetan. Bere-
hala lanean hasteko. 606267824

Lan bila nabil, umeak edo hel-
duak zaintzen edo etxeak garbi-
tzen. Tel. 632 587 450.

Etxeko lanak egiten, eta helduak
edo umeak zaintzen lan egingo
nuke. Paperak egunean. Interna
moduan ere bai. 667 281 660

Paperak eguneratuak dituen
gaztea, geriatría laguntzaile
tituluduna, tabernak garbitzen
eta sukaldari laguntzaile gisa
aritutakoa, orduka edo interno
moduan garbiketa lanetarako
edo helduak zaintzeko prest. 669
679 186

Emakumea eskaintzen da arra-
tsaldeetan hiruzpalau orduz
etxeko lanetan aritu edo adine-
koak zaintzeko. 675 70 24 28.

Pertsona serio, arduratsua eta
paperekin, orduka lan baten
bila: plantxa lanetarako, haur
eta adinekoen zaintza, garbiketa
lanak, tabernan arraskan aritze-
ko... 688 642 835/ 697 887 581.

Etxeko zerbitzuan, helduak edo
umeak zaintzeko eskaintzen
naiz. Usurbilgoa naiz eta errefe-
rentziak ditut. 658703636 Lupe

Auxiliar laguntzaile tituluduna,
helduak zaintzeko eta etxeko zer-
bitzurako prest, baita garbiketa
lanak egiteko ere. 622925562

Lan bila nabil, garbiketara, jate-
txe

batean harraskan aritzeko edo
pertsona helduak zaintzen. Pa-
perak egunean. Tel. 667 983 617.

Mutil gazte euskalduna DBHko
ikasleei klase partikularrak ema-
teko eskaintzen da. Ingeniaritza
kimikoan graduatua, ingeles mai-
la altua. 695 726 499. Jon

Lan bila nabil, orduka edo umeak
zaintzen. 645 530 490.

Lan bila nabil, interna moduan
edo orduka. 631 108 012.

Berandu baino lehen ekin! Irati
eta Ane bakarkako partikularrak,
arreta hizkuntzen sakontzea eta
beste zenbait lanketa eskaintzen
ditugu. Pedagogia eta beste hain-
bat ikasketa. Deitu edo bidali me-
zua: 617 684 523 / 680 160 278.

zua: 617 684 523 / 680 160 278.

Emakume euskalduna eskaintzen
da, astene bi edo hiru egunetan
garbiketa lanak egiteko, goizez
edo arratsalde, irailetik aurrera.
Oso arduratsua. 671 547 567

18 urteko nerabea eskaintzen da
uda garaian baratzako lanak egite-
ko. Tel. 616 260 451.

Lan bila nabil. Pertsona helduak
edo umeak zaintzen. Interna
bezala, orduka edo ospitalean
egoteko. Tel. 676 188 411.

BESTELAKOAK

Informatikako klaseak hartuko ni-
tuzke. Tel. 691 961 669.

Betaurreko batzuk agertu dira,
graduatuak eta funda beltz ba-
tean. Atxegaldeko erdiko kalean.
Zureak badira, deitu: 943 37 13 48

Belarra mozteko makina elektrikoa
(gutxi erabilia) eta enkortadorea
salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arra-
zakoak saltzen dira. 637 974 994

Piano edo teklatu bat erosi-
ko nuke. 675 00 70 48 Garbiñe.

Litera bat salgai, metalikoa, grisa
eta 2 X 0,90 metroko neurriekin,
salgai. Tel. 646 305 658.

Kotxeko ume aulki bat salgai, 2-
3 urteko grupokoa. Arroxa. 646
305 658.

Pago egurra salgai (txinis-
ko eta ekonomikako egokia)
627355126.

Italiera klaseak eskaintzen dira.
Kontaktua: 699 609 058.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak,
patineteak, libururak... Garbi-
gunean. Doan hartu daitezke.
Astelheenetik ostiralera:
10:15-13:00 / 16:00-19:00
artean. Jai egunak ez diren la-
runbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udalzaindaria.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitetgia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta.....	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala.....	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 06 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 07 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Larunbata 08 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Igandea 09 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Astlehena 10 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteartea 11 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteazkena 12 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Uztailak 6 - uztailak 16

Osteguna 13 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Ostirala 14 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 15 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 16 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

* LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda uztaila

07 ostirala

- Ramon Unanueren argazki erakusketa Oiardo Kiroldegian. Azken eguna.
- Manu Urbietaren erakusketa Artzabalen. Uztailearen 31ra arte ikusgai.

08 larunbata

- Manu Urbietaren erakusketa Artzabalen. Uztailearen 31ra arte ikusgai.

09 igandea

- Manu Urbietaren erakusketa Artzabalen. Uztailearen 31ra arte ikusgai.
- Etxalar-Ibardin irteera. Abiatzeko hitzordua: 07:00etan autobusez, Oiardo Kiroldegitik. Uztailearen 5ean amaitu zen izen-ematea.

Muxurbilen izena emateko epea zabalik da



Irailean abiatuko duen 2017-18 ikasturtera begira da jada, Usurbilgo antzerki taldea. Klaseak ostiral arratsaldean eta larunbat goizetan izango dira, 5 urtetik

gorako herritar ororentzat. Izen emateko eta argibide gehiagorako, deitu telefono zenbaki honetara: 675 71 23 83 (Ixabel).

Manu Urbietaren erakusketa Artzabalen

Hilabetez, uztailearen 31ra arte ikusgai izango duzue Artzabal jatetxean, Manu Urbietaren erakusketa. "Urrunetik gertu" izena du jendaurrean jarriko duen berlan bildumak.



Uztailearen 31ra arte egongo dira ikusgai.

Astlehenean odol-ematea ambulatorioan

Bi hileroko hitzorduari hutsik egin gabe antolatu du Usurbilgo Odol Emaileen Elkarteak. Astlehenean izango da, uztailearen 10ean, 18:00-20:30 artean ambulatorioan.



Astlehenean, 18:00etatik 20:30era arte.

Datozenak

Uztailearen 13an eta 14an, UEU-Jakin Jardunaldia Usurbilen

Plaza denak beteta daude, hala ere, UEUren eskaintzan badira herri osoari irekitako ekitaldiak. Hauek:

Uztaileak 13 osteguna

- 18:00 Bisita gidatua Usurbilgo muralgintzan barrena eta Jose Luis Zumetaren estudioa. Aurrez izen ematea komeni da, idatzi mezu bat ondoko posta elektronikora: info@kultour.pro
- 22:00 Gualdia Mikel Laboa plazan, Joseba B. Lenoir eta Miren Narbaizarekin, eta La Basurekin.
- Informazio gehiago: ueu.eus
- Antolatzailea: UEU, Jakin Fundazioa eta Usurbilgo Udala.

Sagarrondotik sagardora ikastaroko saioa

- Uztaileak 15 larunbata.
- 09:00-13:00, Potxoenean.
- Landuko den gaia: "Fruitu arbolen udako edo begiko txertaketa".
- Hizlaria: Josu Osa.
- Izen ematea: 943 361 114
alkartasuna@usurbil.com
alkartasuna.eus



EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITAR TEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus

ELORZA

OBRAK ETA
ERREFORMAK S.L.

661 804 688

San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Santixabel jaiak 2017

Oraindik ez dituzu festetako argazki eta bideoak ikusi?
www.noaua.eus-en edota ondorengo kodeak
eskaneatuta ikus ditzakezu!



Laster oporretara goaz!

Uztailaren 21ean kaleratuko dugu
ikasturteko azken Noaua!

Oharrik, zorion agurrik, albisterik...
argitaratu nahi baduzu, ekarri edo bidali
uztailaren 17a baino lehen.

erredakzioa@noaua.eus · 943 36 03 21



Noaua! App

Herriko berriak beti soinean

Albisteak, agenda eta askoz
gehiago Noaua! app berrian.
Deskargatu doan eta jaso herriko
azken berriak mugikorrean.

Eskuratzeko:



www.noaua.eus



GERTU txartelaren UZTAILA eta ABUZTUKO sarien zozketa:

3 euroko kuntsumizioak eta
2 lagunentzako afariak!

hurbilag 
Hurbilago, Inoiz baino gehiago. Inoiz ere ez gerturik.



Euzko Foruak



Euzko Foruak